

2009KO MAIATZAREN 29AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Maiatza

URTEA: Bi mila eta bederatzi

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Jon Kortaberria Lasa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2009ko apirilaren 7ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK ESLEITZEA:

a.- 25 areako poligono industrialaren urbanizazioa

Ezagutzera eman da 2009ko apirilaren 27an, Kontratazio-mahaiak egindako erabaki-proposamena:

AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzordeak 2009ko martxoaren 10eko datarekin egindako ohiko bileran, erabaki zuen Irigoien, 25 Areako poligono industrialaren urbanizatzeko obrak lizitatzeko baldintza plegua onartzea kontratazioa prozedura irekiaren bitartez eginez. Adjudikazio irizpideak ondorengoak dira:

1.Prezioa / Precio	0 - 70 p.
2. Obraren azterketa / Estudio de la obra, Lanen egitaraua / programa de trabajos	0 - 5 p.
3.- Epeak / Plazos	0-10 p.
4.- Obrari atxikitutako pertsonala / personal asignado a la obra.	0-15 p.

Deialdia, 2009ko martxoaren 24ko GAOean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean, beraien emandako balorazioarekin batera, ondorengo koadroan adierazten dira:

Osotasunean, ekonomiko ikuspuntutik nahiz egikaritze-epea eta kontratatutako beharreko pertsonala kontutan izanda hoberenak izan diren bi eskaintza bakarrik baloratu dira, izan ere, obraren azterketak baloratzea ez luke emaitza aldatuko.

ESTUDIO DE VALORACION IRIGOIEN (ANTIGUO POLIGONO 10).														
LICITACION		OFERTANTES							PUNTUACION					
Importe	Plazo	CONTRATISTA	Propuesta Económica	Plazo	Person al Asignad	Propuest a Media	Baja Media	Limites Baja	Baja Oferta	Precio (70P)	Obra (5P)	Plazos (10P)	Asignado (15 p)	TOTAL
696.274,70	4,00	CNES ORSA ASFALTOS SL	569.206,20	2,50	10,00	616.422,88	11%	0 - 27	18,25	70,00	5,00	7,50	15	97,50
		CNES ITURRIOZ - COPRISA	590.725,62	2,00	12,00				15,16	62,27	5,00	10,00	15	92,27
		GUILLERMO IBARGOYEN SA	591.455,31	3,00	10,00				15,05	62,01		5,00	15	82,01
		CNES CAMPEZO - ELEKTRA	608.238,67	3,50	10,00				12,64	55,99		2,50	15	73,49
		CNES CODOSA - IRUÑA	623.648,98	2,00	10,00				10,43	50,45		10,00	15	75,45
		CNES FRESNEDA	638.198,87	3,00	12,00				8,34	45,23		5,00	15	65,23
		CNES AZYSA	641.485,68	3,50	10,00				7,87	44,05		2,50	15	61,55
		CNES ALZOLA SA	668.423,71	3,50	0,00				4,00	34,38		2,50	0	36,88

Horren ondorioz, Kontratazio-mahiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

“Lehenik. Aipatutako obrak behin-behinik EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.ri esleitzea, **490.695,00 €** €tan, BEZ kanpo. Egikaritze epea, bi hilabete eta erdikoa da. Aldi berean enpresak ondorengo konpromisoa hartu du: obra hamar langileekin egin du eta horietatik 6 langabezian daudenetatik kontratatuko ditu.

Bigarren. Adjudikaziodunak **24.534,75 €**ko behin betiko fidantza eta gizarte segurantzan eta zerga betebeharretan eguneratuta egotearen agiriak aurkezten dituztenean, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako eta kontratua sinatzeko Alkateari baimena ematen zaio. Behin betiko fidantza, behi-

behineko esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da.

b.- Igartza Jauregia kontsolidatzeko eta egokitzeko obrak

Ezagutzera eman da 2009ko maiatzaren 27an, Kontratazio-mahaiak egindako erabaki-proposamena:

Gobernu Batzordeak 2009ko martxoaren 10ean, **”Igartzako jauregia kontsolidatzeko eta egokitzeko (bigarren fasea)”** lehiaketa bidez kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza plegua onartuz.

Lehiaketaren deialdia, 2009ko apirilaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean ondorengo enpresak aurkeztu ziren:

“GIRES, S.A., BIOETXE eta GOITU ERAIKUNTZAK.

Lizitazio prezioa honako hau da: 1.068.006,41 €, BEZ barne. Egikaritze epea berriz: 9 hilabete.

Eskaintza ekonomikoari buruzko kartazala ireki ondoren, lizitatuzaileek aurkeztutako proposamenak hauek dira:

LIZITATZAILEAK	Oinarrizko eskaintza. Epea
GIRES, S.A.	811.387,61 € 6 hilabete
BIOETXE	942.287,73 € 7 hilabete
GOITU ERAIKUNTZAK	865.196,50 € 7 hilabete

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, lortutako balorazioa jarraian adierazten da, kontutan izanda emandako txosten teknikoaren arabera:

Lizitatuzaileak	Obraren azterketa (0-50)	Prezioa (0-20)	Epeak (0-15)	Makinaria Baliabideak (0-5)	Pertsonala (0-5)	GUZTIRA
BIOETXE	50	7,74	19	5	5	86,74
GOITU	25	14,97	19	5	5	68,97
GUIRES	35	20	20	5	5	85

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak egikaritze organoari, hau da, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. "Igartzako jauregia kontsolidatzeko eta egokitzeko (bigarren fasea)" **CONSTRUCCIONES BIOETXE, S.L.** esleitzea, baldintza plegu eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera, **BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (942.287,73 €)Ko prezioan, BEZ barne.** Egikaritze epea zazpi hilabetekoa izango da, zuinketa akta egiten den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Zuinketa akta, kontratu administratiboa sinatzen denetik hilabeteko epean egingo da.

Bigarren. Esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean, 40.615,85 €ko behin betiko fidantza aurkeztuko da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da.

3.- ZERBITZUAK ESLEITZEA. Beasaingo udalerriko parke, lorategi, gune berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzua.

Ezagutzera eman da 2009ko maiatzaren 28an, Kontratazio-mahaiak egindako erabaki-proposamena:

AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzordeak 2009ko apirilaren 7ko datarekin egindako ohiko bileran, erabaki zuen, Enplegu-zentro berezientzat zuzendua dagoen, Beasaingo udalerriko parke, lorategi, gune berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzua prozedura irekia eta izapidetze arruntaren bidez kontratatzeko baldintza plegu administratiboa nahiz baldintza plegua teknikoa onartzea.

II.- Deialdia, 2009ko apirilaren 29ko GAOean argitaratu zen eta proposamenak aurkezteko 15 eguneko epean, ondorengoek sinatutakoak aurkeztu ziren:

IKERLORA JARDINERIA Y VIVEROS, S.L. y la de GOROLDI, S.L.

III.- Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen 144. artikulua arabera, 2009ko maiatzaren 22an kontratazio-mahaiak, alde zuzenetik bete behar diren baldintzak kreditatzen dituen dokumentuak kalifikatu zituen eta ondorengo azaldu zen:

- IKERLORA JARDINERIA Y VIVEROS, S.L.ek ez du kreditatzen Enplegu-zentro Berezia denik.
- GOROLDI, S.L.. Enplegu-zentro Berezia bezala inskribatuta dagoela kreditatzen du, baina ez inskribapen hori indarrean dagoenik.

Baldintza pleguan adierazten den moduan bi lizitatzaileri eskatzen zaie dokumentazio osagarria aurkezteko.

Aldi beran adierazten da, Enplegu-zentro Berezientzat kontratua erreserbatzeko arrazoia ondorengo dela: Udalak behin eta berriz azaldu duen borondatea minusbalioa duten langileek kontratatzea sustatuz, lanpostuan egonkortasuna eta enpresa hauek eskaintzen dieten beste baldintza batzuk bermatuz, izan ere honelakoak ez diren enpresek ez die horrelakorik eskaintzen.

Pertsona horiei zerbitzua ematen dien erakundeekin elkarlanerako betidanik Udala prest egon da eta ildo horretatik jarraitu nahi du. Zentzu honetan hauek aipatu ditzazkegu: Beasainen bere jarduera garatzen duten udal etxe-babestuak, Txelotxe elkarteak, ASPACE, etab

IKERLORA JARDINERIA Y VIVEROS, S.L.ek, 2009ko maiatzaren 26ko sarrera-erregistroa duen idatziaren bitartez adierazten du, ez dagoela Enplegu-zentro Berezia bezala inskribatuta eta alegatzen du lizitazioan parte hartzea, Zentro hauentzat egiten den erreserba, alde zuzenetik eskatzen duela Kontratazio-Administrazioaren Aholkularitza Batzordearen txostena. Horren ondorioz, erabakia legez aurkakoa dela diote eta inpugnatu egin behar dutela.

GOROLDI, S.L.ek 2009ko maiatzaren 26an, Gipuzkoako Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendari Probintzialaren ziurtagiria aurkeztu du, adieraziz aipatutako enpresa Enplegu-zentro Bereziaren inskribapenak indarrean jarraitzen duela.

IV.- 2009ko maiatzaren 28ko datarekin, ondorengo txosten juridikoa eman da, IKERLORA JARDINERIA Y VIVEROS, S.L.ek aurkeztutako erreklamazioari buruz:

“Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen indarrean dagoen Legearen 98 eta 99. artikuluek baldintza plegu orokorrak eta partikularrak bereizten ditu. Lehenik aipatzen den artikulua aurreikusten du baldintza plegu orokorrak onartzeko aukera, baina ez da beharrezkoa.

Kontratazio-espeditenteak behar dituenak dira, kontratua arautu behar duten baldintza plegu administratibo partikularrak eta teknikoak (99,3 artikulua).

Baldintza plegu administratibo partikularrak, kontratazio-organoak onartu behar ditu (99,1 artikulua) eta beraietan kontratuaren alde desberdinek bete behar dituzten baldintza eta paktuak, nahiz Legeak eta hau garatzen duten arauak eskatzen dituen beste xehetasunak aurreikusi behar dira (99,2 artikulua).

Hau da, hain zuzen ere, aztertzen ari garen espeditentean jarraitu den prozedura. Beasaingo Udalak ez ditu onartu baldintza plegu orokorrak, aukerazkoa delako eta horren ondorioz, Kontrataziorako Aholkularitza Batzordeak ez ditu baldintza plegu administratibo partikularrak informatu behar. Izan ere, hau bakarrik egin behar da, hauetan baldintza plegu orokorren aurka, xehetasunak jasotzen direnean.

Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren babesean erabaki zen, parte-hartzea Enplegu-zentro berezientzat zuzentzea, langile afektatuen %70a minusbaliotasuna duten pertsonak direlako. Xehetasun hau lizitazio iragarkian aipatu zen eta horren ondorioz, publizitate, konkurrentzia, gardentasun, berdintasun eta diskriminatzaile eza printzipioak bete egin dira.

Horren ondorioz, onartutako baldintza pleguak zuzenbidearen araberakoak dira.”

V.- Hori guztia kontuan izanik, Kontratazio-mahaiak erabaki du IKERLORA JARDINERIA Y VIVEROS, S.L, enpresa lizitaziotik kanpo uztea. Beraz, GOROLDI, S.L. expresaren C kartazala (proposamen ekonomikoa) irekitzen da. Eskainitako prezioa ondorengoa da:

289.973,75 €, BEZ barne.

VI.- Espedientean dagoen txosten teknikoaren arabera, GOROLDI, S.L. enpresaren eskaintzak, baldintza pleguan aurreikusitako baldintzak betetzen ditu eta proposatzen dituen lau hobekuntzatik, hiru onartzen dira.

Horren ondorioz, Kontratazio-mahaiak kontratazio organoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. IKERLORA JARDINERIA Y VIVEROS, S.L,ek aurkeztutako eskaintza ez onartzea, enpresari hau Enplegu-zentro Berezia bezala inskribatuta ez egoteagatik eta aurkeztutako erreklamazioa ere deuseztatzea aipatutako arrazoiengatik.

Bigarren. Beasaingo udalerriko parke, lorategi, gune berde eta zuhaitzen mantentze-zerbitzua, GOROLDI, S.L,ren alde behin behineko esleipena egitea, **289.973,75 €/urteko (BEZ barne) prezioan**, baldintza plegu administratibo eta teknikoen eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera. Eskaintza honetan, hobekuntza hauek aurreikusten dira:

- Zerbitzuaren esku jartzea Arbotom motako tomografoa zuhaitzetarako.
- Tratamendu-herbizidak aplikatzea.
- Eskainitako Urte sasoiko loreen prezioak sei urtetarako mantentzea.

Egikaritze epea lau urtekoa izango da, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta bi urte gehiagorako luzatu ahal izango da.

Hirugarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamabost eguneko epean idatzi hau jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, **12.498,87 €ko behin betiko fidantza** aurkeztu behar duela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da.

4.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. 8. sektoreko urbanizazio obrak egikaritzeko zerbitzuak kontratatzea.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia : 8. sektoreko urbanizazio obrak egikaritzeko zerbitzuak ordaintzea eta kontratazea.

AURREKARIAK

1.- 2004ko urtarrilaren 13an, Diputatu Kontseiluak behin betiko onespena eman zion 8. Sektoreko Egitasmo Partzialari eta bertan eremu hori garatzeko jarduera-sistema konpentsazioa aurreikusten da.

2.- 2004ko urriaren 5eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, behin betiko onespena eman zitzaion Oinarri eta Estatutuei eta 2004ko abenduaren 27an eskritura publikoren bidez Konpentsazio Batzordea Eratu zen, baina hasieran ez ziren jabe guztiak batzordean sartu.

3.- Konpentsazio Batzordeak, GAUSARKi enkargatu zion, Hirigintza Proiektua idaztea eta obra-zuzendaritza burutzea, 126.331,62 € eta 133.178,20 €, BEZik gabe hurrenez hurren. OSOVI PROYECTOS, S.L.P.ri berriz, Segurtasun eta Osasun Azterlana egitea agindu zion.

4.- Kontutan izanik, Konpentsazio Batzordeak prozedurazko arazoak zituela, Konpentsazio Proiektua onartzeko, 2006ko martxoaren 30ean Udalbatza Osoak jarduera sistema aldatzea erabaki zuen konpentsatziotik kooperaziora pasatuz, 8. Sektoreko garapena sustatzeko asmoarekin.

5.- Horren ondorioz, Udalari dagokio Konpentsazio Batzordeak aipatutako konpromisoen arabera hartutako betebeharretan subrogatzea, jarduera-sistema aldatu zenetik. Zentzu horretan, GAUSARKi 62.871,61 €ko (BEZik gabe) 13 zenbakia duen faktura ordaindu zitzaion Urbanizazio Proiektuaren konturako ordainketa kontzeptuan, enpresa honen eta Udalaren artean inolako dokumenturik sinatu gabe.

6.- Hala era, aipatutako dokumentuak egiteagatik bi faktura gehi urbanizazio obra-zuzendaritzagatik ondorioztatzen direnak gelditzen dira ordaindu gabe.

Horren ondorioz, Alkatetza honek Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Ondorengo fakturak ordaintzea:

- **39/2008 zenbakia duen GAUSARKen faktura, 12.058,80 €koa** (BEZik gabe). Hirigintza proiektuaren ordainsarien likidazioa.
- **23/2008 zenbakia duen OSOVI PROYECTOS, S.L.P.en faktura, 1.972,00 €koa** (BEZik gabe). Segurtasun eta Osasun Azterlanaren ordainsariak.

Bigarren. 8. sektoreko urbanizazio obrak burutzeko, obra-zuzendaritza eta obra egikaritze-zuzendaritza GAUSARKi kontratatzea. Xehetasunak eta kantitateak honako hauek dira:

Obra zuzendaritza / dirección de obra	54.142,12 €
Aparejador	54.142,12 €
Segurtasun eta Osasen Koordinazioa Coordinación Seguridad y Salud	18.232,00 €
Kalitatea kontrolatzeko egitaraua Programa Control de Calidad	6.661,95 €

GUZTIRA / TOTAL **133.178,19 € (sin IVA)**

Urbanizazio obrak amaitu ondoren eta behin betiko likidazioa egindakoa, 8. sektoreko jabeen errekerimendua egingo zaie, aipatutako kantitate guztiak ordaintzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da.

5.- LOKALAREN ERABILPENA LAGATZEA. “Sociedad recreativa cultural Intxaurpe”ri lokalaren erabilpena lagatzea.

Alkatea jaunak, “Sociedad recreativa cultural Intxaurpe”ri lokalaren erabilpena lagatzeko, ondorengo dokumentua sinatzea proposatzen du:

“AURREKARIAK

I- “SOCIEDAD RECREATIVA CULTURAL INTXAURPE” izenarekin Arriaran auzoan helbidea dagoen elkarte 2006ko otsailaren 4an eratu zen. Elkarte hori Eusko Jaurlaritzako Elkarte Erregistroko lehenengo sekzioan inskribatuta dago AS/G/12660/2006 zenbakiarekin eta IFK G20913356 da.

Elkartearen helburua, zera da: biltzeko eta aisialdirako tokia beraien kideei eskaintzea, bertan hitz, irakur edota jolas egin dezaten eta kideen arteko harremanak hobetzeko hainbat jardura antolatzeaz gain, kultura eta aisialdi arloetan jarduerak sustatu ahal izateko.

II- Arriaran auzoan, aisialdirako zentroaren ondoan, Udalak bere jabetzako terrenoetan eraiki duen eraikinaren (equipamendua) jabea da eta

aipatutako Elkarteak Udalari eskatu dio eraikin hori erabiltzeko uztea, helburu horretarako.

III- Bi aldeek elkarri kontratuak egiteko eta obligazioak beren gain hartzeko ahalmena, aitortzen diote eta, kontratu hau idatzi dute ondorengo

HITZBAKETEKIN

Lehenik. Beasaingo Udalak “SOCIEDAD RECREATIVA CULTURAL INTXAURPE” elkarteari bigarren aurrekarietan adierazitako eraikinaren erabilpena lagatzen dio aipatutako helburuetarako.

Bigarren. Lagapena berrogeita hamar urtetarako, prekarioan eta dohainik egiten da. Epe hori amaitzen denean, eraikina baldintza onetan Udalari entregatuko zaio.

Dokumentu honek “SOCIEDAD RECREATIVA CULTURAL INTXAURPE” Elkarteari ematen dion eskubidea besterenezina izango da, Udalak aldez aurretik baimena ematen ez badu.

Hirugarren. Ekipamendua, energia elektrikoa, ura, garbitasuna nahiz eraikina mantentzea, “SOCIEDAD RECREATIVA CULTURAL INTXAURPE” elkartearen kontura izango dira.

Laugarren. “SOCIEDAD RECREATIVA CULTURAL INTXAURPE” Elkarteak, higiezina mantentzea nahiz erantzukizun zibila bermatuko dituen aseguruak formalizatu eta eguneratuta izango ditu.

Bosgarren. Eraikina Udalaren eskura pasako da eta kalte-ordain eskubiderik gabe pasa ere, auzoan premia handiagoko beharrianetarako, baina beti ere goiburuan adierazitako datatik kontaktzen hasita hamar urte pasatu ondoren. Eraikina Udalaren eskura pasatu ahal izateko kontraesan-espeditentea izapidetuko da eta ez bada eraikina entregatzen Udalak egokien irizten dion moduan penalizatu ahal izango du.

Aldi berean, dokumentu hau bertan behera geldituko da eta horren ondorioz, eraikina udalaren eskura pasatuko da, kasu hauetan:

- 1.- Lagapenaren berrogeita hamar urte igaro ondoren.
- 2.- Elkarteak desegiten bada.
- 3.- Lagapenaren xedea betetzen ez denean.

Seigarren. Auzoko edozein bizilagunak eskubidea izango du bazkidea izateko.

Zazpigarren. Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, ekintzak eta publizitatea ere, euskaraz izaten saiatuko dira eta horrela ez denean, euskarak lehentasuna izango du, letraren tamaina, iragarkien denbora, e.a.

Zortzigarren. “SOCIEDAD RECREATIVA CULTURAL INTXAURPE” herriko toki eta bideetan publizitatea jartzeari buruzko ordenantza erregulatzailerak betetzeko konpromisoa hartzen du, baimendutako tokietatik kanpo kartelak ipintzea debekatuta baitago.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Fernando Boada jaunak, PSE-EE/PSOeko ordezkariak esan du beraiek ez dutela onartzen proposatzen dena, orain arte egin dena ere ez dutelako onartu.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, Alkateak ondorengo informazioa eman du:

GAZTERIAKO TEKNIKARIA

Barne promoziorako aurreikusita zegoen gazteria teknikari lanpostua, egoera librean hornitzeko deialdia egingo da.

AHT

Abiadura handiko trenaren obretatik sortuko diren lurrak botatzeko, Muruazpi baserriaren inguruan eratuko da zabortegia.

ARKETAREN TAPA

Ezagutzera eman da Foru kaleko, 17 zenbaki parean dagoen arketaren tapak hots handia ateratzen duela eta eskatu da irtenbide bat ematea, hainbeste zarata atera ez dezan ibilgailuak pasatzen direnean.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.